

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Iruñeko Turismo Bulegoak 4.759 pertsonari arreta eman die Sanferminetako lehen zatian

*Informazio-eskatzailen % 53 estatukoak izan dira eta % 47 beste herrialde batzuetako bisitariak*

Lunes, 11 de julio de 2011

Iruñeko "Nafarroako Erreinua" Turismo Bulegoak 4.459 informazio-eskatzaileri arreta eman die uztailaren 5etik 10era. Jatorriari dagokionez, eskatzailen % 53,16 estatukoak izan dira (2.530) eta % 46,83 (2.229), beste herrialde batzuetatik etorritako bisitariak.

Iazko datuekin alderatuz, aurten % 7 jaitsi da; atzerriko eskatzailen artean % 6,2 jaitsi da eta % 7,7 estatukoaren artean. Jaitsiera hori normalizat jotzen da, Internet bidez bilatu den turismo-informazioak gora egin baitu.

Batez beste 800 eskatzaileri arreta eman zaio egunero. Jende gehien 09:00etatik 11:00etara bildu izan da. Hilaren 9an izan zen jende kopuru handiena: 1.101 eskatzaile guztira, horietatik 658 estatukoak eta 443 atzerriarrak. Jatorriari erreparatuz, estatuko bisitari-kopuru handiena hilaren 9an jaso zen: 508, guztira. Gainera, hilaren 7an eta 8an, 800 informazio-eskaeratik gora egin zen; hilaren 6an eta 10ean, berriz, 795 eta 687, hurrenez hurren. Bisitari-kopuru txikiena hilaren 5ean jaso zen (400 eskaera egin ziren); iaz, egun horretan, 904 bisita izan ziren.

### Herrialdeka eta erkidegoka

Turista atzerriarren artean, frantsesak nabarmendu behar dira (% 17,76); ondoren, estatubatuarak (% 16,28), australiarrak (% 12,9) eta britainiarrak (% 6,5). 2010. urtean, AEB lehen postuan zegoen, eta atzetik zeuden Frantzia, Australia, Italia eta Erresuma Batua.

Estatuko informazio-eskatzaileri dagokienez, nafarrak nabarmentzen dira (% 23,8). Ondoren, bartzelonarrak (% 13,2), madrildarrak (% 11,10), gipuzkoarrak (% 5,5) eta valentziarrak (% 5). Eskualde guztiek postua errepikatzen dute Gipuzkoak salbu, lehen postuetan agertzen dena Bizkaiaren ordez.

Jasotako eta arreta emandako eskaera guztiak ondorengo oinarritzko informazioa ematen oinarritu dira, bereziki: festen egitaraua, hiriko plana, ostatu hartzea, jatetxeak, erraldoien ibilbidea eta entzierroa ikusi eta korritzeko gomendioak. Guztira, hiriko 3.000 plano baino gehiago eta 2.000 aldizkari banatu dira festen inguruko informazioarekin. Informazioa eskatu duten askok eta askok bulegoaren kanpoaldean aurten estreinakoz jarritako mahai eta aulkiak erabili dituzte planoak eta informazio-liburuxkak kontsultatzeko.